



**2017KO MAIATZAREN 19KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hemeretziaren, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2017ko maiatzaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 40 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (173.554,39 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-


Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 17-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea apirilaren 10etik aurrera, astean bi ordu etxeko garbiketarako egiteko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 15-01-015 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea apirilean, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 16-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea apirilean, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.



- 15-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea ekainean, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 17-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntzan eta etxe alokairuaren gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntzan alta ematea urtariletik. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 17-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntzan eta etxe alokairuaren gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntzan alta ematea apiriletik. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da. Eta maiatzetik %50 jaistera bi laguntzak, bizikidetzaren unitatean emandako aldaketak direla eta.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZ EGINDAKO KONPUTAGAILUEN HORNIDURA KONTRATUA LUZATZEA.-

Udal honek, 2014ko ekainaren 20an egindako tokiko gobernu batzarraren bilkuran, eta Gipuzkoako Erosketen Zentralak egindako esleipenari jarraituz, konputagailuen hornidura kontratua 2 urterako S.S.HARD S.L., MONTTE S.L. eta IBERMATICA S.A.ri esleitzea erabaki zuen.

Gipuzkoako Erosketen Zentralak 2016ko maiatzean baimendu zuen esparru akordioaren lehen luzapena eta orain, kontratu horren 2. luzapena planteatzen da eta, dagozkion izapideak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatuak, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez konputagailuen hornidura kontratatuzeko Esparru Akordioa (X13013)" urte betez luzatzea baimentzea ebatzi du.

Guzti hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, udal honek S.S.HARD S.L., MONTTE S.L. eta IBERMATICA S.A.rekin konputagailuen hornidurarako daukan kontratua beste urte betez luzatzea ebatzen du.

V.- LANDA LURREKO DIRU LAGUNTZAK .-

Landa lurreko zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hau hartzen du:

- Almitza Elkartea.- Maiatzaren 28an egingo den sega txapelketaren antolaketarako 1.500 €ko diru laguntza ematea.

VI.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Kultura batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako diru hau hartzen du:

- Lazkaoko Gazte Asanblada.- Apirilean eta maiatzean antolatutako jarduera ezberdengatik 1.619 €ko diru laguntza ematea.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-



LAZKAOKO
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA